2. mailako <u>Hirigintza I. Ingurune fisikoa</u>

HIRIAREN eta ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAREN HIRIGINTZA-MARRAZKETA

4. ariketa

Ariketa taldeka egingo da (hirukoteka). Donostia 3 zatitan mugatu da ariketa egiteko:

- Ekialdekoa: Urumea ibaitik ekialdera dagoena (Altza sartu gabe).
- Mendebaldekoa: Hernanira doan Fedearen pasealekua-Aldapeta-Aiete pasealekua-Oriamendi pasealekua bidetik mendebaldera dagoena.
- Erdialdekoa: esandako bi muga horien artean dagoena.

2 ariketa eskatzen dira:

1.- Hiriaren hirigintza-marrazketa: Donostiako 3 zatietako bat marraztuko da (talde bakoitzari zehazten zaiona), plano bakarrean, 1:5.000 eskalan. 3 ezaugarri soilik adieraziko dira:

- Ekipamendu publiko eta pribatuak, solido beltzez.
- Gainerako eraikinak, solido grisez.
- Partzelen mugak, marra beltzez.
- Itsaso-bazterraren lerroa, marra beltzez.
- Talde bakoitzak marraztu behar duen espazio publikoa, nahi eraran.

2.- Espazio publikoaren hirigintza-marrazketa: Donostiako 3 zatietako bateko espazio publiko bat (talde bakoitzari zehazten zaiona) marraztuko da, oinean zein sekzioan (plano bakarrean edo bi planotan), 1/250, 1/300, 1/500 edo 1/600 eskalan (espazioaren tamainaren arabera). Ezaugarri hauek beteko dira:

- Ez da soilik marraztuko espazio publikoa: inguruko eraikinak ere bai (horiek mugatzen baitute espazioa).
- Behe-solairua marraztuko da, atariak, arkupeak eta lokal komertzialak erakutsiz.
- Xehetasunen bat (hiri-altzariren bat…) interesgarria bada, eskala handiagoan marraztuko da.
- Marra egokiro *baloratu* edo hierarkizatuko da: sekzioan dagoena nabarmenduko da…
- Kota nagusiak adieraziko dira.
- Azken emaitza eskuz zein ordenagailuz egin daiteke, baina tokian bertan eskuz egindako krokisak ere emango dira.

Hortaz, bi edo hiru (edo gehiago, behar badira) plano din A-3 egin behar dira (edo handiagoak, A-3ra tolestuta). Azken emaitza paperean zein CD batean emango da.

Planoetan iparra, eskala, eskala grafikoa eta leienda (beharrezkoa izatekotan) adierazi.

Hurrengo eskolaren hasieran emango dira krokisen fotokopiak, eta, bi eskola barru, hasieran, ariketa osoa bukatuta.

Donostian, 2011ko urriaren 24an

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño